

2.5. Kanalak.

Gure proiektuaren kanalak komunikazio-, banaketa- eta salmenta-prozesuak bideratzeko erabiltzen ditugun bideak dira, eta helburua da balio-proposamena —haurrek ur gehiago eta modu autonomoagoan edatea— ikastetxeetara modu eraginkorrean iristea. Kanal hauek bost fase kontuan hartuta garatzen dira: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa.

Lehenik, komunikazio kanalak erabiltzen ditugu gure produktua ezagutarazteko eta interesa pizteko. Kanal zuzenetakoak dira ikastetxeetan egiten ditugun aurkezpenak, gure webguneko informazioa, sare sozialetan partekatzen ditugun edukiak eta ikastetxeei bidaltzen dizkiegun emailak. Zeharkako komunikazio-kanalen artean daude hezkuntza-azokak eta hezkuntza-materialen banatzaileak, gure soluzioa beren sare profesionalen bidez ezagutarazten dutenak.

Bigarrenik, banaketa kanalak arduratzen dira armairu adimenduna bezeroarengana iristeko modua zehazteaz. Kanal zuzenak dira web bidez jasotzen ditugun eskaerak eta gure taldeak egiten duen instalazioa, horrek ikastetxeei prozesu erraza eta azkarra eskaintzen dielarik. Kanal zeharkakoetan, berriz, hezkuntza-materialen banatzaileak eta material didaktikoko dendak erabiltzen ditugu, produktuaren eskuraerraztasuna handitzeko.

Azkenik, salmenta kanalak bezeroak nola erosten duen eta salmenta ondorengo zerbitzua nola jasotzen duen azaltzen dute. Kanal zuzenetan sartzen dira gure salmenta-talde propioa eta webgune bidezko erosketa-sistema, baita denda digital propioa ere. Kanal zeharkakoetan, hezkuntza-dendak eta handizkariak daude, erosketa prozesua euren azpiegituren bidez erraztuz.

Kanal guztiek ezagutza sortzea, produktuaren ebaluazioa erraztea, erosketa argitzea, entrega profesionala bermatzea eta salmenta ondorengo laguntza eskaintzea dute xede. Horrela, gure proiektuak hezkuntza-komunitatearekin harreman sendo eta fidagarria sortzen du, eta haurrek ur-ohitura osasuntsuagoak garatzea errazten du.

ITURRIAK →



STARTInnova. (s. f.). <https://www.startinnova.com/>

TuLibrodeFP, SLU. (s. f.). *IPE II 2025.*

<https://libreria.tulibrodefp.es/inicio/287-ipe-ii-2025.html>